

ARAZO BARIK

Hau Mario eta Mariaren istorioa da. Gallartako bikote gaztea da, ezkondu berriak.
Egunero 7:00 etan altxatzen dira lanera joateko.
Mario ingeniaria da eta Maria ere bai.
Biek lan berbera egin ahal dute, arazo barik.
Egunero Mariak gosaria prestatzen du eta asteburuetan Mariok Mariari gosaria ohera eramaten dio.
Biek gosaria prestatu ahal dute, arazo barik.
Gero, etxekolanak egiten dituzte bien artean, Mariok ohea eta sukaldea eta Mariak hautsa kendu eta erratza pasatu.
Biek etxekolanak egin ahal dituzte, arazo barik.
Gero lanera joateko kotxez joaten dira. Batzuetan Mariok gidatzen du eta beste batzuetan Mariak.
Biek kotxea gidatu ahal dute, arazo barik.
Arratsaldean, etxera itzultzen dira eta arropa kendu eta gero, garbigailua jartzen dute, asteburuetan Mariaren ardura da eta beste egunetan Mariorena.
Biek garbigailua jarri ahal dute, arazo barik.
Gero, afaria, bien artean prestatzen dute. Lehenengo platera Mariak prestatzen du eta postrea Mariori egitea gustatzen zaio oso gozozalea delako.
Biek afaria prestatu ahal dute, arazo barik.
Afaldu ostean ere, platerak eta sukaldea garbitzen dituzte bien artean.
Biek platerak eta sukaldeko garbiketa egin ahal dute, arazo barik.
Gero, haien gauzei buruz hitz egiten dute. Biei gauza berberak gustatzen zaizkie: liburuak irakurtzea, kirola, bidaiak, mendira joatea...
Biek gauza berberak egin ahal dituzte, arazo barik.

Biek asko maite dute elkar, biak maitatzeko gai dira,arazo barik.

Hau irakurri ostean, nork esan ahal du emakumeak eta gizonak desberdinak garela?

Baina, Maria bat-batean gaixorik jarri zen, ez zen ondo sentitzen. Beti botaka zegoen eta ez zuen jateko gogorik. Medikuarengana joan zen eta ikerketa batzuk egin zizkioten, hau sorpresa ! Haurdun zegoen, ume bat izango zuen. Oso pozik zeuden biak haien etxean ume bat izango zutelako.

Biek pozez, negar egin zuten.

Biek negar egin ahal dute, arazo barik.

Umea bien artean zainduko dute,arazo barik.

Hemen dago emakumeen eta gizonen artean aurkitu dudana ezberdintasun bakarra. Emakumeek umeak erditzen dituzte eta gizonek, nahiz eta nahi izan, ezinezkoa dute.